

5. JARDUERA GILTZARRA

Gure zerbitzua aurrera eramateko, beste zerbitzu batzuen laguntza izango dugu. Hau da, bitartekari lanetan arituko gara.

Hasteko, aiton-amonek eskatutako zerbitzua gauzatuko duten pertsonen kontratazioa hainbat iturri ezberdinetatik egingo dugu. Iturri bat Internet izango da, hain zuzen Michael Page pertsonal kontratazio web-orria. Honen bitartez gure profilerara egokitzen diren pertsonak hautatuko ditugu. Honen helburua, Gipuzkoako herri ezberdinetan bizitzen diren langileak aurkitzea da, eta era berean gertuko zerbitzua ematea, behar dutenei lanpostu bat eskainiz.

Material aldetik, bozgorailuak eskuratu ditzakeen enpresa bat izango dugu, Euskaltel. Gure zerbitzuan ezinbestekoa da bozgorailua, baina aldi beren, behar dugun bozgorailu kantitatea nahiko handia da. Horregatik haiek haien bozgorailuak prezio berezi batean utziko dizkigute, eta guk trukean , bere marka sustatuko dugu. Bozgorailuekin batera kargadoreak utziko dizkigute.

Bestalde beste hainbat enpresen kontaktu laguntzak subkontratatu ditugu honako zerbitzuak betetzeko;

- Erosketak egiteko Eroski kooperatibarekin hitzartu dugu. Langileak gure enpresaren errekonozimenduarekin, establezimendura sartu eta zerbitzu pertsonalizatua erabili ahal izango du. Aiton-amonek eskatutako produktuak lehen bai lehen Eroskiri jakinaraziko diogu eta produktu lortu eta eskuragarri utziko dizkigute.
- Garbiketa lanak gauzatuko dituen enpresak, Jon Urdangarinen Servicios de limpieza izango da. Hauek garbitzeko materiala eskainiko digute (aspiragailuak, garbitzeko erratzak, garbitzeko produktu kimikoak, garbitzeko trpuak, kristalak garbitzeko gailuak).